

**FM eta NSKaz jota dauden
gaixoen**

II.MANIFIESTOA

12-05-2005

Duela urte bete, Fibromialgiak eta Neke Sindrome Kronikoak jota gaudenok gure lehenengo MANIFIESTOAn egiaztatzen genuen mediku ESTAMENTUAK eta politikariek gaixotasun hauek aitortzeko(RECONOCER) beharra, mundu mailan asko baitira gaixotasun hauek pairatu behar dituzten emakume, gizon eta umeak.

Gaur, urte bete geroago, ikus dezakegu elkarte mugimenduek gora egin dutela eta osasun PROFESIONALEK gai honetan interesa handitu dutela, bien arteko elkarlana bultzatuz. Gaur, helburua ez da eskua altxa eta min egiten digula esten jarraitzea gizarte mailan. Behar duguna, Osasun Zerbitzu Publikoaren arreta deitzea da. Osasuna, gaixotasun ezaren egoera bada, ezin dugu gaixotasunak ikusi edo ikusi nahi ez dituen sistema onartu, sufritzen dauden gaixoak alde batera utziko genituzkeelako.

FM eta NSK ez dira zientzilariek aztertu beharreko egoera arraroak, gaixotasunak baizik. Eta hau horrela uler dezaten behar dugu. Osasun Zerbitzu Publikoak duen BUROCRACIA kontutan izanik, jarraitu beharreko PROTOCOLO eta CODIFICAZIOAK behar dira, osasun arduradun bakoitzak hoien aurrean gura duena egin ez dezan.

Sufritzen duen horrenbeste jende ezin da oker egon. Gaixoaren mina sendatzea edota gutxitzea ez da fede kontua. Minaren aurrean ez da posible Medikuntzak ezagutzen edo ezagutu nahi ez duen arazoa mespretsatzea.

FM eta NSKaren Mundu Mailako Egun honetan beharrezkoa da PROFESIONALEI bide egokiak eskaintzea beren ardurapean dagoena egin dezaten eta familia medikuei atentziora deitzen diegu gaixoak behar bezala laguntzeko eta espezialistekin kontaktuan jartzeko gaixotasun hauek behar bezala tratatzeko. Osasun publikoaren arduradunei arduratxuak izatea eskatzen diegu.

Bapateko PANDEMIA batekin izango luketen erantzun azkartasun bera, bi gaixotasun hauekin izatea eskatzen dugu. Gaixotasun hauek ez dute uzten pertsonak guztiz garatzea mina jasangaitza gertatzen baitzaie, eta botere publikoek ezin dute egoera hau onartu.

Gaixotasunak irizpideen batasuna behar du. COMUNIDADES AUTÓNOMASen gaineratik eta haien artean adostasuna egonik. Gaitza eta minak sufritzen dauden pertsonak bat egiten dute, elkartzuz, kidetasuna eskainiz, bakarrik ez sentiaraziz, arazoari buruz mintzaz elkarren artean ulertzen baitute. Gaixotasuna eta mina hizkuntza, ingurua eta sinesmenen gaineratik dauden kontzeptuak dira. Gaixo bat ez da leku bakar batekoa, mundukoa baizik. Era berean, medikuak ez dira aberri bateko edo besteak. MANDATO hipokratiko unibertsala dugu soilik. Orain, ondorengoan behar dugu indar egin: ADMINISTRAZIO desberdinek ezikusienak egin ez daitezela.

Gaixotasun hauen eraginak ez dira gorputzean soilik nabari. Berehala lagundu behar den giza alderdi bat dugu. Diagnostikoaren eta larrialdiaren arabera, lanbidea utzi beharko duten gaixoak daude. Eta gaixotasunaren mailak hala eskatzen badu, hau MINUSVALIA bat bezala tratatuko da, egoera honi dagozkion laguntzak eskainiz.

Horregatik, gaixotasun hauei buruzko informazio guztia JUDICATURA ren esku jartzea beharrezkoa da. Hau, epaituko dutenek erabakiak hartzean arazoak izan ez ditzaten egin beharko litzateke. Era berean, EMPRESARIOAK ETA SINDIKATUAK CONCIENCIATU araztea beharrezkoa da. Formula berriak bilatuz gaixorik daudenak beraien lanbideetara gertura daitezten.

FM eta NSKaz jota dauden gaixoen indarririk handiena gizartean isolaturik ez geratzearena da. Behar honi aurre egitea ADMINISTRAZIOEN eskuetan dago. Gaixo hauek, batez ere lan egiteko adinean daudenek, ez dute hetsi nahi.

Hau dela eta, beharrezkoa da bideak egokitzea aurrera jarrai dezaten.

Ikerkuntza hareagotzea eskatzen dugu bai publikoa bai pribatua, hainbeste pertsonak sufritzen dituzten gaixotasunei aurre egiteko. Gauza ez da REMEDIOAK jartzea, baizik eta gaixotasunak hasieratik AFRONTATZEA MEDIANTE ACTO DE PREVENCIÓN. Ez dugu lokarturiko gaixorik nahi, osasuntsuen mundura itzuli nahi dutenak baizik.

Azken finean, arazoa hurrengoa da: ez da sendabiderik egongo jakinda oraindik ere gaixotasun hauek kontutan hartzen ez dituzten profesionalak tratamendu normalizatua egiten ez badute. Jakin badakigu bi Medikuntza mota ditugula: bata, gaixoa entzuten duena; bestea, zifrak bakarrik hartzen dituenak kontutan, sintomatologia alde batera utziz. Estatu mailan bilatu eta aurkitzen diren elkarteak, irtenbide ONURAGARRIAK ikertzen hasiak diren profesionalak, arazoaren jakinaren gainean dagoen biztanleria, hauek guztiek, ez dute OSASUN AUTORITATEEN ixiltasuna merezi.

Duela urte bat estaen genuen moduan, ulertezintasun eta ixiltasunaren mina, gorputzarena berarena baino jasangaitzagoa da. FM eta NSKaz jota gaudenok gure benetako borondatea ikustarazi nahi dugu gure borroka luze honetan. Nahiz eta sendatua ahal ez izan, bestelako gaixoen antzera ikus gaitzaten nahi dugu gaur medikuntzan ezagutzen diren eta erabil daitezkeen aurrerapenak kontuan izanik.

Helburu honekin gaitz hau pairatzen dugun guztiok geure eskuetan dagoena egingo dugu egoera honetan eta mundu mailan gaudenok geure nahiak eta beharrak bete daitezzen.